

"URBASAKO" TELEMARLEN LAGUNAK

Patxi Zabalo



URBASAKO zuhaizti naturaletik Vanoise zuhaiztu nazionalera... telemark eski teknika erabiltzera joan ginenean. Eulka! Herriaren bihotzean, Urbasako parke naturala aurki daiteke. Hogeita bi mila metro karratuko goi-lautada karstiko eder honek 900 metroko batz besteko altuera du eta Hego Europako pagadi handienetako bat eskeintzen digu. Vanoiseko parke nazionala, Goi-Saboyan kokaturik, 125.000 hektareatan zabaltzen da eta bertan izugarriko glaziarak eta Alpeetako eski tokirik ezagunenak (Val D'Isere, Tignes...) aurki daitezke. Hara dihoanak sarrioak, muxarrak, nibal eperra, eta bertakoak diren hainbat animalia topa ditzake. Tximista bezain azkar egin genuen bidaia. Gure Urbasa maitea apirilaren hamaikan, goizez, fisikoki utzi genuen eta hurrengo egunean, goizeko 11etan, Val Claret ibarran geunden.

■ 1. EGUNA: Val Claret ibarratik La Gliere aterpera

Eguerdian Val Claret mendiko estazioa utzi genuen. Teleaulkiak "Col du Palet" ondoan utzi gintuen. Arratsaldeko hiruretan aterpera iritsi ginen. Muxar batzuek gain, ez zen beste inor ikusten inguruan. Aterpea gure zain omen zegoen. Sua prestatu ondoren, aforia: dilistak, basurde txorizoa, Urbasako gazta eta edateko... zahar toa ere gurekin genuen.

■ 2. EGUNA: La Gliere aterpetik Col de La Vanoise aterpera.

Lasaiki lo egin genuen. Esne beroa eta gailetak gosalduta gero, jarraitzeko prest geunden. Goizeko zortziak ziren eta termometroak zero azpiko 12 graduetan geundela esan zigun.

Rosolin Glaziarrera heldu ginenerako, oskarbia eta bero-beroa zen. Sarrio batzuk ikusi genituen. Ezkerraldean, Grand Casse hormatik zintzilikan dauden serak erraldoiak pasa genituen. Vallençant-ek eskiatzen jaitsi zuen Italiarren "couloir" (mendarteak) ikusi genuen. Azkenean, Col de La Vanoise-ra heldu ginen. Hemendik aterpera dena aldapa behera, baina aurkitu genuen elur gogorra ez zen batere ona telemark erabiltzeko. Hanketan nabaritzen genituen zartadurek galerazi gintuzten. Anaia eta biok, ahal izan genuen eran, telemark erabiliz jarraitu genuen eta Adolfo, mendiko eskiz, giro bakoitzean gozatzen ikusten genuen.

Aterpeko ate ondoan eserita egon ginen. Ohar hauek idazteari uzten nion bakoitzean, burua altxatu eta nire aurrean "La Grand Casse" mendi tontorraren hegoaldea amets baten irudia izango balitz bezala ikusten nuen.

■ 3. EGUNA: Col de La Vanoise aterpetik La Femma aterpera

Goizeko zazpitan Dome de Chasseforet-eruntz abiatu ginen, la Rechasse izeneko glaziarra zeharkatu behar genuen. Hurbil zegoen mendi tontor txiki batetik, La Femma-raino geratzen zitzaigun tartea ikusten genuen. Behera gindoazela, hasieran gure teknika-

rako zaila zen elurra aurkitu genuen. Leise ibaiaren ibar-runtz abiatu bezain laster, elurraren egoera aldatu zen. Handik aurrera udaberriko elurra zenez gure telemark primeran zihoan. Nire aurrean, nire anaia Felix-ek biraketa zoragarriak egiten zituen.

Rocheure ibaiaren ibarra gaintitze-ko, "fokak" jarri behar izan genituen. Inguru alaitu horietan muxarrek begiratzen gintuzten. Aterpera lur jota heldu ginen, arratsaldeko seiak ziren. Etapa nekagarria egin zitzaigun. Telemark istoriak leher eginda uzten zaitu!!!

■ 4. EGUNA: La Femma aterpetik Fond de Fours aterpera

Goizeko 6etan aterpetik atera ginen. Poliki-poliki, Col du Pisset-eruntz abiatu ginen. Hara heldu eta, eguraldi goxoa eta inguru liluragarria aprobetxatuz, bazkari eta bazkalondo luzea hartu genuen.

Gure eskuman Mean Martin mendia (3300 m) genuen. Arratsan alpatxo behera hasi ginen. Elur kaskarra, batzutan gogorregia, denetatik aurkitu genuen bidean. Felix erori eta eguzki beturrekoak apurtu zitzaizkion. Arratsaldeko hiru terdietan aterpera heldu ginen.

■ 5. EGUNA: Fond de Fours aterpetik Prariond aterpera

Goizeko 6etan jarri ginen bidean. Termometroak 15 C zero azpitik markatzen zuen. Ni oso larri nihoan, aurreko egunean aterpeko



"LA VANOISE" PARKEAN



ARGAZKIAK: YATZI ZABALO

ate ondoan lokartu nintzen eta katarro ederra harrapatu bainuen. Elurretako eperra ikusi genuen. Col de l'Iseran-eko errepidetik pasa ginen. Fokak jartzeko gelditu ginen eta konturatu gabe gure Indurain eta portu hartan berak lotutakoei buruz hitz egiten ari ginen.

"Pays desert" honetan ibiltzen, Ouille Noire koiladora heldu ginen. Montet izeneko glazierra eta portua zeharkatzeko eskiak sorbaldan hartu eta oinez jarraitu genuen, gure atzean azterna sakonak utziz. Nahiko jaitziera arazotsua izan genuen, pasabide zati askotan elur kaskarra aurkitu bait genuen. Felix eta biok bira eder batzuk egiten lortu genuen. Adolfo, orde, errez zebilen elur hoietan.

Aterpean lasai asko eseri ginererako, arratseko ordu bi terdiak ziren.

6. EGUNA: Prairond aterpetik Benevolo aterpera.

Goizeko zazpi terditan atera ginen. Hasieran eskiak sorbaldan eramanez eta gero fokak erabiliz hasi genuen ibilaldia. Egun lainotsua zen eta Galise tontorrera iritsi ginenean, Italiako aldean, elurra ari zuen. Holan ez zen asko ikusten baina jaitzieraren hasieran elurraren egoera hobezina zenez, telemarkez egiten genituen birak ondo lotuak atera zitzaizkigun. Elur zailek eta de Fond-eko glaziarraren aurki genituen zartadurek gure jaitzieraren azken zatia arriskutsua bihurtu zuten.

Hamabi terditan aterpera heldu ginen. Aterpeko ate ondoan eserita, gero ta jende gehiago iristen ikusten nuen. Irudi honen atzekaldean, Galise tontor ederra, La Tsanteleina... eta infinitoa.

Gauean, aterpea jendez gainezka zegoen. Aosta ibarratik igo ziren italiar mendizale batzuek. Alpe-etako musika eta guzti ekarri ziguten. Trikitixa antzeko musika entzunez oheratu ginen.

7. EGUNA: Benevolo aterpetik Tignes-era eta Urbasara

Goizeko zazpitan Tsanteleina mendileporantz abiatu ginen, poliki lasai, gozatuz. Hara heltzen ginen hiru ordu pasa ta gero, azken tarteunea krampioez eta eskiak sorbaldetan eramanez egin izan behar genuen. Handik aurrera, dena aldapa behera. Elur egokia aurkitu genuen eta bira bapoak atera zitzaizkigun. Gure eskuinaldean, Murallo De la Sassiere mendi zirrargarria.

Jaitsi eta gero laku ertzetik jarraitu genuen oinez. Urbasarako errepidean, geundenean hamabiak ziren. □

DATU TEKNIKOAK

- Ibilaldi hau 1997ko apirilak 12 eta 18 artean egin genuen.
- Materiala eta parte hartzaileok: mendiko gida eta nire laguna den Adolfo Martinez Jaungok mendiko eskiak erabiliz; nire anaia Felix eta biok, telemark eskiak erabiliz.
- Mapak: 1/50.000 La Vanoise, Massif et Parc National.
- 1/25.000 Tignes, Val d'Isere, IGN

